

1	2	3	4	5	6	7
---	---	---	---	---	---	---

Datu horrek funtsaren arriskua adierazten du eta simulatutako datuetan oinarrituta kalkulatu da. Hala ere, litekeena da funtsaren etorkizuneko arrisku-profilaren adierazle fidagarria ez izatea. Gainera, ez da ziurtatzen kategoria hori denborarekin aldatuko ez denik.

1 / 6

Zenbaki horiek produktuen arriskua adierazten du 1/6 zenbakia arriskurik txikiena adierazten du eta 6/6 zenbakia handiena.

Kreditu Erakundeek Gordailuak Bermatzeko Funtsari atxikita dago LABORAL Kutxa, 2011ko urriaren 14ko 16/2011 Errege Dekretuan aurreikusitakoari. Gaur egun, 100.000 euroko gehieneko zenbatekoa bermatzen dio funts horrek gordailugile bakoitzari. Adierazle hori AURREZKLIK &... kontuari dagokio.

LABORAL Kutxaren azalpena...

PUBLIZITATEA

HIPOTEKA BAT DUT, KOMENI ZAIT AURRETIK AMORTIZATZEA?

Hipoteka Bermedun Mailegua gure bizitzako kontraturik luzeenetakoa izan ohi da. Hain da luzea non, hasierako ilusioaren ostean, ezeztatuko dugun egunarekin amestea izaten den normalena.

Horregatik, diru-kopuru bat erabilgarri izan orduko, zor hori **amortizazio aurreratuen** bidez murriztea aztertzen dugu. Baina...

Gure aurrezkiak bideratzeko aukerarik onena da beti?

Izan daiteke edo ez, norberaren egoera ekonomikoaren, beharren eta aurreikuspenen arabera, eta inbertsio batek eman lezakeen errentagarritasunaren arabera. **Egoera eta momentu bakoitzak noranzko batean edo bestean eraman gaitzake.**

Amortizatzea ari bazara aztertzen, **kontuan izan aholku hauek:**

1. BEGIRATU APUR BAT URRUNAGO



Amortizatu baino lehen, ziurtatu epe ertaineko eta laburreko gastuak estalita dituzula, alferreko estatusunik ez pasatzeko.

Garrantzi handikoa da PLANIFIKATZEA...

Autoa aldatu behar dut? Etxea pintatu? Ekitaldi edo ospakizunen bat dator?

1. Kontuan izan epe laburreko eta ertaineko diru-beharrak.
2. Kalkulatu horietako bakoitzaren zenbatekoa.



Berehala egin beharreko gastuetarako, gorde dirua **aurrezki-kontu** batean.



Geroagoko helburuetarako, berriz, interesgarriagoa izan daiteke **inbertitzea.**

...baina ez ahaztu PREBENITZEA

Etxekide batek salgai jarri du zuk eduki nahi zenukeen autoa; etxetresna elektriko bat hondatu egin da... Gutxiengo espero duzunean agertzen dira beti aukerak eta ustekabeak. Horregatik, **diru-erreserba batzuk baditugu, aise egin ahal izango diegu aurre ustekabeako gastuei.**

Horrela egin ezean, baliteke beste mailegu bat eskatu behar izatea, **mailegu pertsonal bat** (horrek dakarren guztiarekin).




GOGOAN IZAN
Amortizazioak ez du atzera-bueltarik!
 Horregatik, komenigarria da zure premiak beteta izatea, amortizazioa egin baino lehen.

2. AZTERTU ZURE DIRUARI ETEKINA NOLA ATERA



Epe laburreko eta ertaineko beharrak beteta dituzula uste baduzu,

aukera ona izan daiteke AMORTIZATZEA...



- Hipoteka zure ohiko etxebizitzarena bada, **amortizazioak zerga-abantailak ekar diezazkizuke.**
- **ADI:** batzuetan, gehiago gutxiago da, eta **urteko mugatik gora amortizatuz gero, desgrabazioak gal ditzakezu.**
- Amortizatu aurretik, **kontsultatu zure gestorearekin, errenta-aitorpena optimizatzeke.**

...baina kontuan izan **BESTE AUKERA BATZUK** ere



Aزتتو zure hipotekaren ezaugarri ekonomikoak. Batzuetan, aztertzeke moduko aukera izan daiteke inbertitzea.

Gogoratu erabakiak **lasaitasunez eta erantzukizunez** hartu behar dituzula beti; izan ere, inbertsio-funtsetan parte hartzeak kapitala galtzeko arriskua ekar lezake.

AURREZTEA ASKO KOSTATZEN DA; egizu modu ordenatu batean, ahalegina errentagarria izan dadin...



Aزتتو une eta egoera bakoitza, eta, **zalantza**ren bat baduzu, zoaz zure **LABORAL Kutxa** bulegora edo jarri harremanetan zure gestorearekin **Online Bankaren** bidez, gehien komeni zaizun aukerari buruzko informazioa eman diezazun.